

Hainbat hobekuntza jasotzen dituen ordezkoen araudi berria sinatu du LABek EAEko Hezkuntza Saileko Zerbitzuetako langileen Mahai Negoziatzailean



Gaur, EAEko Hezkuntza Saileko zerbitzuetako langileen mahai negoziatzailea izan dugu Lakuan. Gaurkoan, LEP prozesuaren deialdia, langile-kategorien monografiak eta ordezkoen araudi berria izan ditugu aztergai.

Salatu nahi dugu hilabeteetan zerbitzuetako langileen funtzioak zehazteko egindako lana eta aurkeztutako alegazioak kontuan hartu gabe, zehaztasunik gabeko monografiak helarazi zizkigutela duela egun batzuk.

LABek argi utzi du, monografietan zehaztasunak jasotzea ezinbestekoa dela langileen funtzioen artean talkak ekiditeko batetik, eta bestetik, zerbitzuetako langileek egiten duten lana aitortzeko. Ordezkoen araudiari dagokionez, sindikatu guztion ekarpenak jasota, akordioa erdietsi dugu Hezkuntza sailak eta ordezkariak sindikalaren gehiengo osatzen dugun sindikatuok (LAB, UGT eta CCOO), hainbat hobekuntza jasotzen dituen araudi berria sinatuz.

LEP Prozesua

Gogoratu nahi dugu Lan Hitzarmenean jaso bezala, behin behinekotasun tasa %5etik behera mantendu behar dela lan kategoria bakoitzean.

Gauzak horrela, duela egun batzuk Hezkuntza Sailak sukalde eta garbiketako langileen kategorietarako LEP prozesuaren lehen proposamena bidali zigun. Hau oposizio-lehiaketa prozesua izango litzateke (azterketa fasea eta merituak).

Eskaintza 57 plazarako egitea proposatu dute (26 sukaldari lanpostu eta 31 garbitzaile lanpostu). Proposamena aztertu eta LABetik hainbat ekarpen egin dizkiogu dokumentuari:

- Eskainiko diren lanpostuen kopuruari dagokionez, sukaldeko eskaintza handitzea eskatu dugu. Osoan dauden bakante guztiak eskaintzen badituzte ere, proposatutakoarekin behin behinekotasuna ez baita %5aren azpitik geratuko. Horretarako, datorren ikasturteko beharrak aztertze eskatu diegu LABetik, ahalik eta bakante erdi gehienak osora pasatu eta hauek eskaintzan txertatu ahal izateko.

- Oposizio fasea (azterketa) ahalik eta eramangarrien izateko, hautagaiek alde aurretik gaitergia eta galdera-sorta eskuragarri izatea.
- Merituen atalari, non lan esperientzia, prestakuntza akademikoa eta euskara eskakizunak jasotzen diren, ahalik eta pisurik handiena ematea.
- Euskara ezagutzari behar besteko tokia ematea.

Aipatu digutenaren arabera, oposizio-fasea gainditzen duten eta kategoria bakoitzean eta puntuazio-ordenaren arabera hautatzen ez diren pertsonen zerrenda bat sortuko da. Pertsona horiek txanda-kontratu baten esleipendun izan ahalko dira, lanpostu hutsak badaude. Esleipen horiei uko egiteak, ez du inolako zigorrik izango.

Langileen Monografiak

Zerbitzuetako langileen kategorietako funtzioen lanketa aspaldi hasita baguen ere, eta azken mahai teknikitik 7 hilabete igaro direnean, duela egun batzuk jaso genituen langile kategoria guztien monografia proposamenak. Gure harridurarako monografia hauetan ez zen alde aurretik landutako funtziorik jasotzen. Aurkeztu dizkiguten monografia hauek zehaztasunik gabekoak dira. LABen ustez, ezinbestekoa da funtzioak argi jasotzen dituzten monografiak izatea, langileen funtzioen arteko talka ekiditeko batetik, eta bestetik, zerbitzuetako langileek egiten duten lanaren aitortzari begira. Administrazioak proposamen berri bat helaraziko digu mahaian aipatutakoa kontuan izanik.

Ordezkoen araudia (III. eranskina)

Akordioa erdietsi dugu Hezkuntza Sailak eta Zerbitzuetako langileen ordezkaritzaren gehiengoa osatzen dugun sindikatuoketa ordezkoen araudian hainbat hobekuntza txertatu dira:

- Hautagaiek haien lan egoera aldatu ahalko dute egunero (lanerako prest edo lanerako ez prest). Lanerako moduan ez badaude beraz, hautagaien ardura izango da haien egoera aldatzea, forzosorik jaso ez dezaten.
- Ordezkabidean lan eskaintza guztia ikusi eta aukeratu ahal izango dute hautagaiek, aukeratuta duten lurralde eta jarduna kontuan izan gabe. Aukeratuta duten lurralde eta jarduna soilik nahitaezko esleipenetan eragingo du.
- Babestutako egoera” ezartzen da eta baremoari begira tartek ezartzen dira. Horrek esan nahi du ordezkabidean egoera babestua alegatu eta justifikatu duten langileek ez dutela eguneroko esleipenetan parte hartu beharko puntuazioa lortzeko eta duten hurrenkeraren araberako tarteari dagokion batazbesteko puntuazioa eskuratukodutela baremazio aldian. Honek egoera babestuan dauden langileak beraien lanpostura ez inkorporatzeagatik gertatzen diren hutsuneak saihestuko ditu.

- Kontratu hobekuntza ezartzen da LABek egindako ekarpenari jarraituz. Horrela, ikasturtean zehar lanpostu huts bat bitarteko kontratu bidez bete behar denean, SMS bidez jakinaraziko zaie ordezkapen kontratua dutenei, ekoizpen arazoengatik kontratua dutenei, bakante partziala duten langileei (lanpostu hutsa osoa denean) eta lanean ez dauden ordezkgai guztiei Ordezkabidean eskainiko dela.
- Behin Ordezkabidean eskeinita, eskaera egiten duten guztien artean puntuazioari jarraituz esleitu da. Sailarekin beste lan-kontratu mota bat indarrean izanez gero, hari uko egin ahal izango zaio eta eskaintzen zaion lanpostu huts baterako bitarteko kontratua aukeratu ahal izango da. Indarrean dagoen kontratu bati uko egiteak ez du ekarriko, kasu horretan, ondorioz.
- Horrez gain, esleipenduna lan-istripuagatik, lanbide-gaixotasunagatik, edo aldi baterako ezintasuneko egoeran; gurasotasun lizentzian; haurdunaldian arriskua edo arriskuko haurdunaldian; zaintzagatik eszedentzian; edo jardunaldi-etete iragankorrean (haurrak zaintzeko) edo haurdunaldiaren seigarren hilabetetik aurrera egonez gero, lanpostu hutsa gordeko zaio eta egoera hori sortu duen gertakaria amaitzen denean kontratua indarrean jarriko da eta lanpostu horretan hasiko da lanean eta lanpostuaren iraunaldia emandako zerbitzalditzat zenbatuko zaie.
- “Ikasturtean behin indarrean duten kontratuari uko egin ahalko diote hautagaiek hezkuntzako beste zerrendetan lanpostu bat esleitzuz gero.
- LAB Sindikatuaren alegazioari jarraituz, ikasturtero epe bat zabalduko da (udan) langileek indarrean duten kontratuari uko egiteko. Epe horretan uko eginez gero, ez dute inolako penalizaziorik izango. Horrela, irailaren 1etik disponible egongo dira eta ordezkabidean parte hartu ahal izango dute. Edonola ere aipatu behar dugu, epe honetan uko eginez gero langabezi prestazioa jasotzeko eskubidea galduko dutela.
- LABek horrela eskatuta, ordezkolan-kontratudunprestasuna diruz konpentsatzeaz gain, hein berean puntuazioarekin konpentsatuko da.

Eranskin hau akordioa sinatzen den unean indarrean sartuko da baina Ordezkabidea aplikazio informatikoa gaitu beharko da dagokion aldaketekin eta aukera berriekin.

Bestelakoak

- IKT langileen mahai monografikoa egitea eskatu du LABek eta laster deialdia bidaliko digutela adierazi zaigu
- Lan Hitzarmena maiatzaren 12 edo 13an EHAAn argitaratuko dela aurreikusten dute.

LABetik orain arte bezala, lanean jarraituko dugu zerbitzuetako langileen lan baldintzak hobetzeko.

LAB ha firmado la nueva normativa de sustituciones que recoge varias mejoras en la Mesa Negociadora del personal de servicios del Departamento de Educación de la CAV



Hoy se ha celebrado la mesa negociadora del Personal de Servicios del Departamento de Educación de la CAV en Lakua. En la reunión hemos tenido como temas a analizar, la convocatoria del proceso de OPE, las monografías de las categorías de personal y la nueva normativa de sustituciones.

Queremos denunciar que, sin tener en cuenta el trabajo realizado durante meses para concretar las funciones del Personal de Servicios ni las alegaciones presentadas, hace unos días se nos remitieron unas monografías sin ninguna concreción.

LAB ha dejado claro que recoger concreciones en las monografías es imprescindible, por un lado, para evitar conflictos entre las funciones del personal, y por otro, para reconocer el trabajo que realiza el Personal de Servicios. En lo que respecta a la normativa de sustituciones, recogiendo las aportaciones de todos los sindicatos, hemos alcanzado un acuerdo entre el Departamento de Educación y los sindicatos que conformamos la mayoría de la representación sindical (LAB, UGT y CCOO), firmando una nueva normativa que recoge diversas mejoras.

Proceso OPE

Queremos recordar que, tal y como se recoge en el Convenio Colectivo, la tasa de temporalidad debe mantenerse por debajo del 5% en cada categoría profesional.

En este sentido, hace unos días el Departamento de Educación nos envió la primera propuesta del proceso OPE para las categorías de personal de cocina y limpieza.

Este sería un proceso de concurso-oposición (fase de examen y méritos). Han propuesto realizar una oferta de 57 plazas (26 puestos de cocina y 31 puestos de limpieza). Tras analizar la propuesta, desde LAB hemos realizado varias aportaciones al documento:

- En cuanto al número de puestos que se ofertarán, hemos solicitado aumentar la oferta de cocina. Aunque se oferten todas las vacantes existentes a jornada completa, con la propuesta realizada la temporalidad no quedaría por debajo del 5%. Para ello, desde LAB hemos solicitado analizar las necesidades del próximo curso, con el objetivo de pasar a jornada completa el mayor número posible de vacantes a media jornada e incorporarlas a la oferta.

- Para que la fase de oposición (examen) sea lo más llevadera posible, que las personas candidatas dispongan previamente del temario y de una batería de preguntas.
- Dar el mayor peso posible al apartado de méritos, donde se recogen la experiencia laboral, la formación académica y los requisitos de euskera.
- Dar al conocimiento del euskera el lugar que le corresponde.

Según lo que se nos ha indicado, se creará una lista con las personas que superen la fase de oposición pero que no hayan sido seleccionadas para un puesto fijo. Estas personas podrán ser adjudicatarias de un contrato de relevo si existen puestos vacantes. La renuncia a dichas adjudicaciones no tendrá ninguna penalización.

Monografías del personal

Aunque iniciamos hemos trabajado sobre las funciones de las categorías del personal de servicios desde hace tiempo, y habiendo transcurrido 7 meses desde la última mesa técnica, hace unos días recibimos las propuestas de monografías de todas las categorías de personal. Para nuestra sorpresa, en estas monografías no se recogía ninguna de las funciones trabajadas previamente. Estas monografías que se nos han presentado carecen de concreción. Desde LAB consideramos imprescindible disponer de monografías que recojan claramente las funciones, por un lado, para evitar conflictos entre funciones del personal, y por otro, de cara al reconocimiento del trabajo que realiza el Personal de Servicios.

La Administración nos remitirá una nueva propuesta teniendo en cuenta lo señalado en la mesa.

Normativa de sustituciones (III. Anexo)

Hemos alcanzado un acuerdo entre el Departamento de Educación y los sindicatos que conformamos la mayoría de la representación del Personal de Servicios, y se han incorporado diversas mejoras en la normativa de sustituciones:

- Las personas candidatas podrán cambiar su situación laboral cada día (como disponible o no disponible). Si no están disponibles para trabajar, será responsabilidad de las propias personas candidatas cambiar su situación para no recibir adjudicaciones forzosas.
- Las personas candidatas podrán ver y elegir toda la oferta de empleo en Ordezkaide, sin tener en cuenta el territorio y la jornada seleccionadas. El territorio y la jornada seleccionadas solo influirán en las adjudicaciones obligatorias.
- Se establece la “situación protegida” y se fijan tramos de cara al baremo. Esto significa que las personas trabajadoras que hayan alegado y justificado una situación protegida en la bolsa de sustituciones no tendrán que participar en las adjudicaciones diarias para obtener puntuación y obtendrán la puntuación media correspondiente al tramo según su orden en la lista. Esto evitará los vacíos que se producen por la no incorporación a su puesto de trabajo de las personas trabajadoras en situación protegida.

- Se establece la mejora de contrato siguiendo la alegación realizada por LAB. Así, cuando durante el curso haya que cubrir un puesto vacante mediante contrato de interinidad, se notificará por SMS a quienes tengan contrato de sustitución, contrato por circunstancias de la producción, a las personas trabajadoras con vacante parcial (cuando el puesto vacante sea completo) y a todas las personas candidatas que no estén trabajando, informando que éste se ofrecerá en Ordezkabide.
- Una vez ofrecido en Ordezkabide, se adjudicará entre todas las personas solicitantes siguiendo la puntuación. En caso de tener otro tipo de contrato en vigor con el Departamento, se podrá renunciar a este y optar por el contrato de interinidad del puesto vacante ofertado. La renuncia al contrato en vigor no tendrá consecuencias en este caso.
- Además, si la persona adjudicataria se encuentra en situación de accidente laboral, enfermedad profesional o incapacidad temporal; en permiso por nacimiento y cuidado; en situación de riesgo durante el embarazo o embarazo de riesgo; en excedencia por cuidado; o en suspensión temporal de jornada (por cuidado de menores) o a partir del sexto mes de embarazo, se le reservará el puesto vacante y, cuando finalice la situación que ha originado dicha circunstancia, el contrato se activará y comenzará a trabajar en ese puesto, computándose la duración del puesto como tiempo de servicio prestado.
- Las personas candidatas podrán renunciar una vez por curso al contrato en vigor si se les adjudica un puesto en otras listas de educación.
- Siguiendo la alegación del sindicato LAB, cada curso se abrirá un plazo (en verano) para que las personas trabajadoras puedan renunciar al contrato en vigor. Si renuncian en ese plazo, no tendrán ninguna penalización. De este modo, estarán disponibles desde el 1 de septiembre y podrán participar en Ordezkabide. En cualquier caso, hay que señalar que, si renuncian en este plazo, perderán el derecho a percibir la prestación por desempleo.
- A petición de LAB, además de compensar económicamente la disponibilidad del contrato de sustitución, también se compensará en la misma medida con puntuación.

Este anexo entrará en vigor en el momento en que se firme el acuerdo, pero deberá habilitarse la aplicación informática Ordezkabidea con los cambios correspondientes y las nuevas opciones.

Otros temas

- LAB ha solicitado la realización de una mesa monográfica del personal TIC y se nos ha indicado que próximamente se nos enviará la convocatoria.
- Se prevé que el Convenio Colectivo se publique en el boletín oficial los días 12 o 13 de mayo.

Desde LAB, como hasta ahora, seguiremos trabajando para mejorar las condiciones laborales del personal de servicios.